

2023



**MEMORIA**



**Lantegi Batuak**  
Ehuneko ehun gai Cien por cien capaces

# PERTSONAK GARA

“Lantegi Batuak irabazi asmorik gabeko erakundea da, desgaitasuna duten pertsona guztientzat kalitatezko lan arloko abaguneak zein aukera okupazionalak eskaintzen jarduten duena, lehentasunez intelektualak edo garapenekoak eta Bizkaian, pertsona horien garapen eta bizi-kalitate ahalik eta handiena lortu eta gizarte bidezkoago eta solidarioago bat erdiesten laguntzeko xedez.

Hori lortzeko, ekimen berritzaile, iraunkor eta lehiakorrek garatzen ditugu, erakundeko pertsona guztien gaitasunak indartuz, eta beren bizitza-proiektua lortzeko bidean aurrerapausoak emateko laguntza egokiak eskainiz”.

**3.247**  
PERTSONA

**%81**  
DESGAITASUNA  
DUTEN PERTSONA


**%54**  
ADIMEN-  
DESGAITASUNA  
DUTEN PERTSONA

**107M€**  
SALMENTETAN

**280M€**  
Gizarte-balio integratua  
Valor social integrado

# 2023-an sortutako GIZARTE BALIOA

Gizarte-balio integratuak gurekin elkarrekintzan diharduten interes-talde ezberdinengan sorrarazten dugun inpaktu orokorra islatzen du. Gizarte Kontabilitatea aplikatuz lortzen da, merkatuko jardueren bidez sortutako etekina zein txanponezko transakziorik islatzen ez duten baina interes-taldeei balioa dakarkien onurak barne hartzen dituena.



## Erabiltzaileak eta familiak

- Diru-sarrerak
- Zaintza-ordu liberatuak
- Mantenua
- Gastu medikoak
- Programa espezifikoak
- Kokapena

## Administrazioa

- Kotizaziorik gabeko pentsioak
- Familia-zaintza
- Osasun-prestazioak
- Enplegua
- Zergak

## Hornitzaileak

- Egindako erosketen balio erantsia

## Gizartea

- Balio erantsia
- Soldatak
- Zergak

## Langileak

- Soldatak
- Prestakuntza

## Bezeroak

- Lehiakortasuna
- Deslokalizaziorik eza



# 1. PERTSONAK

**3.247**

**PERTSONA**

1.164 emakumezko  
2.083 gizonetzko

**%81-k**

**DESGAITASUNA  
DUTE**

%33 emakumezko  
%67 gizonetzko

**1.418**

**ADIMEN-DESGAITASUNA  
DUTEN PERTSONA**

478 emakumezko  
940 gizonetzko

**Industrian:**

**2.055**

**DESGAITASUNA  
DUTEN PERTSONA**

633 emakumezko 1.422 gizonetzko

**1.209**

**ADIMEN-DESGAITASUNA  
DUTEN PERTSONA**

408 emakumezko 801 gizonetzko

**Zerbitzuetan:**

**546**

**DESGAITASUNA  
DUTEN PERTSONA**

210 emakumezko 336 gizonetzko

**209**

**ADIMEN-DESGAITASUNA  
DUTEN PERTSONA**

71 emakumezko 138 gizonetzko

# Pertsonen gizarte eta lan arloko garapenerako **ORIENTAZIOA**

Orientazio-zerbitzuaren bidez, arreta pertsonalizatua eskaintzen dugu pertsonari enplegu bat lortzen laguntzeko edo beren garapenerako aukera hobek emateko, beren helburu eta jomugak zehaztuz. Laguntza eskaintzen diegu pertsona bakoitzaren gaitasun eta premien arabera beren lanpostu aproposena zein den jakin dezaten.

**711**

**ORIENTAZIO-ESKAERA JASO DIRA**

460 gizonezko  
251 emakumezko

(100 gizonezko eta 55 emakumezko desgaitasunarekin)

**714**

**INFORMAZIO-EKINTZA**

desgaitasuna duten pertsonentzat eta haien familientzat

(aurrez aurreko arreta, telefono bidezkoa, dokumentazio-bidalketa)

**1.781**

**ORIENTAZIO-EKINTZA**

(taldekoak, banakakoak, praktiken eta beka profesionalen kudeaketa, etab.)



**2023an zehar, Enplegagarritasunean Laguntzeko Zerbitzuko taldea Lantegi Batuak erakundearen garapen profesionalerako abaguneak erakusteko xedea zuten 8 enplegu-topaketetara bertaratu zen.**

**Halaber, topaketak egin ziren prestakuntza-zentro ugarirekin, haietako ikasleak gure instalazioetan hartuz edo beren zentroetara joz.**



# GARAPEN SOZIOLABORALA

**Pertsona bakoitzari egokitutako  
inklusio-ibilbidea, beren gaitasunak  
aintzat hartuta**

Lantegi Batuak erakundeak pertsona bakoitzak gizarte eta lan arloko ibilbide pertsonalizatua burutzen du, norberak dituen gaitasun eta premiei erantzute aldera.

Hainbat laguntza-metodologia aplikatuz, lanpostu bakoitza egokitzen da eta plan individualizatuak garatzen dira, pertsonaren bidelagun izanik bere ibilbidean zehar, orientazioa, prestakuntza, okupazioa eta enplegua barne hartuz.

**775**

pertsona **ZERBITZU  
OKUPAZIONALAREN**  
barruan

256 emakumezko  
519 gizonezko

**1.862**

pertsona  
**ENPLEGU-ZENTRO  
BEREZIAREN**  
barruan

602 emakumezko  
1260 gizonezko

**140**

pertsona  
**ENPLEGU  
LAGUNDUAN**

55 emakumezko  
85 gizonezko

## Laguntza-plan indibidualizatuak

Laguntza-plan indibidualizatuetan pertsona bakoitzari, beren bizi-kalitatea hobetzeko xedez, eskaintzen zaizkion laguntza guztiak jasotzen dira. Horiek ezartzeko, pertsonen interesak, jomugak eta premia indibidualak aintzatesten dira, eta plan horretan jasotzen dira, modu pertsonalizatuan.

HELBURUEN  
**%80**  
LORTUTA

JOMUGEN  
**%82**  
LORTUTA

**809** PERTSONAK (DESGAITASUN INTELEKTUALA  
ETA GAIXOTASUN MENTALA DUTENAK)

beren laguntza-planak, eurak garatzeko xedeak eta beren lanpostuen banakako egokitzapenak berrikusi dituzte.



## Pertsonak

# 189

pertsonak **AURRERA EGIN DUTE**  
**PROFESIONALKI**

## 58

Pertsonak  
**ZERBITZU OKU-  
PAZIONALAREN**  
barruan

## 72

Pertsonak  
**ENPLEGU-ZENTRO  
BEREZIAREN**  
barruan

## 27

Pertsonak  
**ZERBITZU  
OKUPAZIONALETIK  
ENPLEGU-ZENTRO  
BEREZIRA**

## 32

Pertsonak  
**BIZKAIKO ENPRESETARA**

11 emakumezko  
21 gizonezko





## EGOKIPLAN

### Zerbitzu okupazionala, zahartze aktiboari laguntzeko

Egokiplan zerbitzu okupazionalaren eredua da, Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartua. Helburua adimen-desgaitasuna duten pertsonen izaten dituzten zahartze-zantzu goiztiarrei aurre egiteko beharrezkoak diren laguntzak, jarduerak eta dinamikak sorraraztea da.

2017an jarri zen martxan, pertsonen beren erreferentzia-zentroetan lan egiten jarrai dezaten, hala nahi badute. Horrela, gizarte eta lan arloko garapenerako ohiko jarduerak sintomak (nekea, memoria gutxitzea, tristezia edo umore-aldaketak) arintzera bideratutako beste batzuekin uztartzen dituzte.

2023an, zerbitzua hemen eman zen:

7

**ZENTRO**  
Getxo, Zalla, Otxarkoaga,  
Sondika, Txibila, Basauri  
eta Erandio

80

**ERABILTZAILE**



Pertsonak

# PRESTAKUNTZA

Lantegi Batuak erakundearen pertsona guztien prestakuntza beren garapenerako funtsezko habetako bat da, laguntzekin batera.

Prestakuntza egokitua garatzen dugu, praktikoa, pertsona bakoitzaren gaitasunen garapenari zein gure bezeroen premiei erantzun onena emateari begirakoa.

**44.647**

PRESTAKUNTZA-ORDU

**71**

ekintza  
ETENGABEKO  
PRESTAKUNTZAN

PERTSONEN

**%95**

-ak hartu dute parte etengabeko prestakuntzako ekintzaren batean





## Pertsonak

### LAN ESKOLA

Lan Eskolaren bidez, prestakuntza egiaztatua garatzen dugu, Lantegi Batuak erakundearen zentro homologatuetan zein zentro kolaboratzaileetan, eta enpleguari erreparatzen diogu.

Prestakuntza teorikoaren osagarri, tutoretza-jardunak eta akonpainamendu indibidualizatua burutzen dugu, Lantegi Batuak erakundearen nahiz Bizkaiko beste enpresa batzuetan.

### Prestakuntza - ekintzak:

<b>5</b> PROFESIONALTASUN- ZIURTAGIRIEI lotuak (1.055 ordu)	<b>%59</b> ADIMEN- DESGAITASUNA DUTEN pertsonak	<b>%30</b> KONTRATATUAK formakuntza amaitzean
<b>PARTE-HARTZAILEAK</b> 28 emakumezko 18 gizonezko		<b>%27 emakumezko %73 gizonezko</b>

### Akademia egokitua:

2023an, berriro jarri zen martxan Akademia Egokitua; haren helburua da Lantegi Batuakeko adimen-urritasuna duten 112 pertsonari Bizkaiko Foru Aldundiaren LEPa prestatzen laguntzea.

# LAGUNDUTAKO ENPLEGUA

Lagundutako Enplegurako programaren helburua da desgaitasuna duten pertsonak gure lurraldeko enpresetan sartzea.

Adimen-urritasuna duten pertsonak Bizkaiko enpresetan kontratatzea lortzeko, Enplegu Lagunduaren programak aholkularitza ematen die enpresei, eta kontratazio-prozesu horretan laguntzen die.

Gainera, lanposturako pertsonarik egokiena hautatzen du, eta hura prestatzeaz eta, behin lanean hasita, haren jarraipenaz arduratzen da.

**417**  
BISITA ENPRESETARA  
(behaketa, legea  
betetzeko aholkularitza  
eta kontratazioa)

**32**  
KONTRATAZIO  
BERRI  
28 enpresatan

**1.702**  
LAN-PRESTATZAILEEK  
EGINDAKO JARRAIPEN

**120** PERTSONA KONTRATATUTA, 99 enpresatan  
35 emakumezkoak 85 gizonezkoak



# GIZARTE-BALIO INTEGRATUA (GBI)

2023an, Lantegi Batuak erakundeak 57 milioi euroko Gizarte Balio Integratua (GBI) sortu zuen desgaitasuna duten pertsona eta beren senideen alde, diru-sarreraren, zaintza-ordu liberatu, mantenu edo mediku-gastuen bidez.

Gainera, langileen alde 39 milioi euroko GBI-a sortu zuen hainbat kontzeptutan, esate baterako, soldatan eta prestakuntzan.

**57M€** GIZARTE-BALIO  
INTEGRATUA (GBI)

DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEI  
ETA FAMILIEI

**39M€** GIZARTE-BALIO  
INTEGRATUA (GBI)

LANGILEEI

## 2. ENPRESA-JARDUERA HELBURU SOZIALAREKIN

Profesionalizazioa, apustu teknologikoa eta gure prozesuen hobekuntza.

Horiexek dira bai industria-sektoreko bai zerbitzu-sektoreko gure bezeroentzako zerbitzuaren gakoak.

Haien proiektuetan esku hartzen dugu, teknologiak eta zerbitzu industrialak kanporatuz.

Badugu enpresen eta administrazio publikoen beharretara egokitutako zerbitzu-sorta zabala, bizitegi-sektoreetan, zerbitzu publikoetan, autonomia pertsonalean eta abarretan.

**107,3 M€**  
FAKTURAZIOA

**3,07 M€**  
INBERTSIOAK

**46,2 M€**  
BALIO ERANTSI

Industrian 33,4 M€  
Zerbitzuetan 12,8 M€

**169**  
BEZERO BERRI

40 industrian  
129 zerbitzuetan

## Enpresa-jarduera helburu sozialarekin

Lantegi Batuak, gure bezeroen beharrak  
lan-aukera bihurtzen ditugu.

Honako hauetan espezializatuta gaude:

### INDUSTRIAN

ELEKTRONIKA

MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOAK

KABLEATUAK

TRANSFORMAZIO METALIKOA

LOGISTIKA

### ZERBITZUAK

GARBIKETA

LOREZAINZA

DOKUMENTUEN KUDEAKETA

VENDING

ETXEZ ETXEKO JANARIA

PUBLIZITATE-BANAKETA, GARRAIOA  
ETA POSTA

INPRIMAKETA DIGITALEKO  
ZERBITZUAK

[www.lantegibatuak.eus/nuestras-tecnologias-para](http://www.lantegibatuak.eus/nuestras-tecnologias-para)

[-la-industria-en-subcontratacion-23](#)



# GIZARTE-BALIO INTEGRATUA (GBI)

Gure hornitzaileei 21 milioi euroko balioa eman genien eta gure bezeroei 148 milioi eurokoa, besteak beste, lehiakortasunaren (deslokalizazioa saihestuz) eta egindako erosketen balio erantsiaren kontzeptuetan.

**21M€** GIZARTE-BALIO  
INTEGRATUA (GBI)

GURE HORNITZAILEEI

**148M€** GIZARTE-BALIO  
INTEGRATUA (GBI)

GURE BEZEROEI



# 3. GIZARTE KOHESIOA

Gizarte-kohesioa bultzatzen dugu geure lurraldean,  
eta, gainera, eragin soziala sortzen dugu.

Lantegi Batuak erakundeak 40 urte bete zituen 2023an. Lau hamarkada horietan gizarte arloko erreferente bilakatu gara eta gizarteratze eta laneratze arloko eragile egituratzailea, gizarte-erakunde, entitate publiko eta bezeroen eskutik hartuta aurrera eginez.

40 urtetan, Lantegi Batuak erakundeak 8.500 pertsona baino gehiagoren gizarteratzea eta laneratzea ahalbidetu du. Bizkaiko eskualde guztietan dago, eta 20 zentro industrial eta pertsonen osatutako zerbitzu-taldeak ditu erabilgarri, gizarteko parte aktibo direnak eta beren komunitatean balioa eta aberastasuna ekartzen dutenak lanaren, partaidetzaren eta lankidetzaren bidez.



Gizarte - kohesioa

## PARTE-HARTZEA GIZARTEAN

### EKINTZA KOMUNITATEAN

Adimen-desgaitasuna duten pertsonak —batez ere zerbitzu okupazionalaren erabiltzaileek— lankidetzako eta pedagogiako hainbat jarduera komunitariotan parte hartu zuten, kultura-, kirol- eta prestakuntza-jardueretan, besteak beste.

### BISITAK

Urtean zehar, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako prestakuntza-zentroetako taldeen, gizarte eta desgaitasun esparruko Estatuko eta Europako erakundeen zein nazioarteko erakundeen (Kolonbia edota Korea) bisitak jaso ditugu, beste talde batzuen artean.

**426** EKINTZA  
KOMUNITATEAN

**117** PERTSONA  
etorri ziren gu  
ezagutzera

## 22 JARDUNALDI

Horietan, nagusiki, gure gizarte eta lan arloko garapen-eredua, enplegurako gure abaguneak, gizarte-kontabilitatearen aplikazioan dugun esperientzia edo gizarteratzeko eta laneratzeko prestakuntzan jardun berritzaileak partekatzen ditugu.

### LANKIDETZAK ETA PROIEKTUAK

**Europar Batasunan bultzatutako Europako GIVE-COVE** proiektuan parte hartzen dugu, pertsonen inklusiorako Lanbide Heziketaren berrikuntzan laguntzeko helburu nagusiarekin.

2023an zehar, Irakurketa Errazean gure esperientzia eskaintzen jarraitu dugu **lraz proiektuan**, testuak Irakurketa Errazera aldatzeko tresna bat sortzeko ekimena, Adimen Artifizialean oinarritutako teknologiak erabiliz. Lantegi Batuak erakundeak ekimen honetan parte hartzen du Lectura Fácil Euskadi, Merkatu eta Gureak Marketing elkarteen lankidetzarekin, eta baita Vicomtech zentroaren kolaborazioarekin ere, Adimen Artifizialean espezializatutako teknologia-zentroa.

**BBK Inklusiboa** ekimenean parte hartzen jarraitzen dugu, Bizkaiko enpresetan desgaitasuna duten pertsonen kontratazioa sustatzea helburu duen programa honetan Laguntza bidezko Enpleguan dugun esperientzia eskainiz.

[www.lantegibatuk.eus/la-inteligencia-artificial-al-](http://www.lantegibatuk.eus/la-inteligencia-artificial-al-servicio-de-la-lectura-facil)

[servicio-de-la-lectura-facil](http://www.lantegibatuk.eus/la-inteligencia-artificial-al-servicio-de-la-lectura-facil)





## BEKEN DEIALDIA

Ikasle diren edo tituludun berri diren desgaitasuna duten pertsonentzat. Lehen aldiz 2011 abian jarritako deialdi hori Deustuko Unibertsitatearen, EHU-ren, UNIR-en eta Mondragon Unibertsitatearen lankidetzarekin sustatzen da.



## AITORTZAK

**Eusko Jaurlaritzaren Harrobi Diploma**, euskara sustatzearekin konpromisoa duten erakundeak aitortzen dituen, hizkuntza-eskubideak sustatu eta sendotzeko prozesu bat abiatu dutenak.

**BBK Deia Elkartasun saria**, Hirugarren Sektoreko erakundeen lanari.

**Erraza Saria**, enpresa kategorian, Lectura Fácil Euskadirena.

# GIZARTE-BALIO INTEGRATUA (GBI)

2023an, desgaitasuna duten pertsonen inklusioa eta garapena lortzeko gure eginahalek bere eragina izan zuten gizartean. Horrela, 64 milioi euro sortu ziren Herri Administrazioen alde (pentsio ez-kontributibotan, familia-zaintzan, osasun arloko prestazioetan edo enpleguaren sorreran aurreztuz) eta 128 milioi euro Gizarte-balio Integratuan gizartearen alde (balio erantsian, soldatetan, zergetan).

**64M€** GIZARTE-BALIO  
INTEGRATUA (GBI)

ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI

**128M€** GIZARTE-BALIO  
INTEGRATUA (GBI)

GIZARTEARI

# 40 URTEKO BIZITZA, OSPAKIZUN-URTEA

2023an gure 40. urteurrena ospatu genuen, etiketak baztertzeko borrokatu zuten pertsonak omentzeko, hamarkada hauetan guztietan gaur egun ezagutzen dugun erakundea erdiesteko lan egin dutenak.

Beste ekintza batzuen artean, ospakizunak egin genituen Lantegi Batuak erakundearen zentro eta zerbitzu guztietan, pertsonak omenduz eta aitortuz, dagoeneko erretiroa hartutako adiskideekin elkartuz, erakusketa ibiltariak antolatuz, bideo-emanaldiekin, etab.





40. urterrena

## OSPAKIZUNAK

**3.476** PERTSONAK

zentro eta zerbitzuetan egin ziren ospakizunetan parte hartu zuten

**236** PERTSONAK

aitormena jaso zuten Lantegi Batuak erakundeari egindako ekarpenagatik. Lantegi Batuak erakundeko pertsonak, dagoeneko erretiroa hartu dutenak, proiektua bultzatu duten senitartekoak edo hamarkada hauetan zehar bidelagun izan ditugun profesionalak.



[www.lantegibatuak.eus/celebramos-agradecemos-y-reconocemos-40-anos-de](http://www.lantegibatuak.eus/celebramos-agradecemos-y-reconocemos-40-anos-de)

[-compromiso-por-la-inclusion](#)



## GURE 40 URTEAK PARTEKATUZ

Lantegi Batuak erakundearen 40 urteak Bizkaiko gizartearekin lotzera bideratutako kanpo sentsibilizazio-ekintzen barruan, Metro Bilbaoren lankidetzaren genuen, gure ibilbidearen erakusketa ipintzeko bere 8 geltokietan.

Gainera, gure mezua eraman genuen Euskotreneko hainbat geltokitan eta Bilbobus zein Bizkaibus enpresen markesinetan, Bizkaiko 60 puntutan gure presentzia izanik.

[www.lantegibatuak.eus/sin-etiquetas](http://www.lantegibatuak.eus/sin-etiquetas)



 Izan ere,  etiketak  kentzen  dituzunean,  pertsonak  geratzen  dira

Lantegi Batuak duela 40 urtetik ari da lanean gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa lortzeko. Bizkai osoan zehar desgaitasuna duten 2.600 pertsonari baino gehiagori eskaintzen dizkie enplegu egonkorra eta lana.



**ESKERRIK ASKO GURE HISTORIAREN PARTE IZATEAGATIK**



EZAGUTU BERAIE  
TESTIGANTZAK

[www.lantegibatuak.eus](http://www.lantegibatuak.eus)  
#100eko100gai #etiketarikgabe



 Porque  cuando  quitas las  etiquetas,  quedan las  personas 

Lantegi Batuak trabaja desde hace 40 años para lograr una sociedad más inclusiva y cohesionada. Genera empleo estable y ocupación para más de 2.600 personas con discapacidad y está presente en todas las comarcas de Bizkaia.

**GRACIAS POR SER PARTE DE NUESTRA HISTORIA**



DESCUBRE SUS  
TESTIMONIOS

[www.lantegibatuak.eus](http://www.lantegibatuak.eus)  
#100x100Capaces #sinetiquetas





## 40 URTEKO ESPERIENTZIA IRUDITAN

Historiako 40 urte jasotzen zituen omenaldi-bideoa, Lantegi Batuak erakundeko 12 pertsona historikoen ahotik, oso esparru ezberdinetakoak eta bizitza-esperientzia ezberdinekin, Lantegi Batuak erakundearen zentro berrietako batean elkartuta, Sestaobarrin.





# Lantegi Batuak

Ehuneko ehun gai Cien por cien capaces



[www.lantegibatuak.eus](http://www.lantegibatuak.eus)